

## 2.2 Gaia: **ELKARRIZKETA KUALITATIBOA**

Elkarrizketa bat burutzerako orduan kontuan hartu behar da kontaktazioa, grabagailua eta transkripzioa, alde etikoak (baimen informatuak) eta lekua.

Kontaktazioa ikertzaileak eta ikerketa berak ezarritako irizpideak jarraituz egiten da LAGINaren arabera. Kontaktazioan landa lana hasten da, hau da, harremana sortzen dugu.

### **LAGINKETA**

Populazioari buruzko informazioa lortzea ezinezkoa izaten da populazioa osatzen duten elementu guztiak ikertzea oso zaila delako, eta horregatik unibertsoaren zati bat ikertzen da besterik ez, horri lagina esaten zaio. Lagina osatzerako orduan parte hartzaileen aukeraketa egin behar da, nortzuk parte hartuko dute? Zenbat? Hau adierazgarritasun estatistikorik gabe egin behar da eta haiekin kontaktatuz. Bi lagin mota daude, probalistikoa eta ez probalistikoa. Probalistikorako ezinbestekoa da populazioa osatzen duten elementu guztien zerrenda izatea eta lagina horretatik elementuak zoriz aukeratzen dira. Baina ez probalistioan aldiz, populazioaren zerrendarik ez daukagunean da edota zoriz aukeratzen ez dugunean. Azken mota honen barruan iritzi laginketa (kasuen multzoa talde txikia eta anitza, ikuspuntu ezberdinak ezagutzeko), komenientziako lagina (hurbil edo eskuragarri ditugun informeak eta ikerketa esploratzaileak dira), kuota bitartez edo estrukturala, elur bola.

### **GIDOIA**

Ardatz tematikoaren gaien zerrenda da, bertan galderak daude elkarrizketatuari burutzeko.

### **ZEREGINA**

Ikerketaren helburuei, hipotesiei eta ikerketa galderei erantzuteko informazioa lortu behar da lehenik. Gero elkarrizketaren norabidea, ordena eta denboraren erabilpena aldatzeko malgutasuna izan behar dugu. Azkenik elkarrizketaren norabidea, ordena eta denboraren bidezko kontrola eraman behar da.

### **ATALAK**

- 1- Sarrera edo aurkezpena konfiantza sortzen. Elkarrizketatzailea aurkeztu behar da, elkarrizketa nolakoa den azaldu, ikerketaren informazioa eman, ikerketa ordaintzen dutenen informazioa eman eta bukatzeko baimen informatuaren sinadura jaso.
- 2- Galderak. Inbutua erabiliz antolatu galderak, lehenengo galderaren garrantziagatik ordenatu, gaien aurkezpen irekia eta zabala eman eta informazio sakona lortu behar da.

- 3- Agurra. Zerbait komentatzeke geratu dela ikusten badu hori azaltzeko aukera eman behar zaio momentu honetan. Bere denbora eta ezagutza eskertuz amaitu dezakegu elkarrizketa hau eta saria edo ordainketa eman behar bazaio hau da momentua.

Elkarrekintza prozesua harreman eroso eta egokia izateko: ez epaiketarik ezta kritika zuzenik, zalantzan jarri errespetuan oinarrituz, intimitateari errespetua, egoera eroso ez bada bertan behera utzi, ez-ahozko komunikazioa erabili, elkarrekintzetan inplikatu esanahiak eta emozioak ulertuz, pazientzia izan hitz egiten utzi ildo berreskuratu arte, performatibitatearen eta jokabideen aurrean sentikorrak izan behar gara eta ezin du sen arrunta normaltzat hartu.

Kontuan hartu beharreko faktoreak hauek dira: informazioa biltzeko teknikak ondo aukeratu behar dira (grabagailua, bideoograma, notak hartu...), elkarrizketa egiteko tokia ondo aukeratu behar da ( lasaitasuna, zarata gutxi etenaldirik ez, eta elkarrizketatuarentzat eroso, erraza heltzeko...)

Bukatzeko, elkarrizketa sustatzeko teknikak hauek dira: isiluneak, oihartzunak, laburpenak, ekitea, hozkailua, atsedenaldiak, estimulazioa.